

# Diskurtso arriskutsua



**AINGERU EPALTZA**  
IDAZLEA

**E**uskal Herriko azken inkesta soziolinguistikoaren Nafarroako emaitzak argitaratzean ikasi genuen: 2011tik hona, Foru Komunitatean indartu egin da euskararen erabilera sustatzearen kontrako jarrera, eta ahuldu, berriz, aldekoena. Euskal txio herrian, jendea *ez da posible*-ka ikusirik, xaloxalo menturatu nuen azalpen bat: “Nafarroako soziologia aldatzen ari da emigrazioaren eraginez. Kanpotik etorriek, nagusiki, bat egiten dute historikoki euskararen aldera arrotasunean bizi eta -80ko hamarkadaz geroztik- hezi izan den populazioaren zati handiarekin. Gure natalitate ahulak gainerakoa egiten du”.

Erran banuen, erran nuen. Ez tien hartu ninduenak “diskurtso arriskutsutzat” jo zuen nire ekarpena. Bertzeren batek, iraina: “Arrazista zikina”.

Ez du ospe onik euskararen egoera eta emigrazioa ekuazio berean sartzeak. Ezta aldagai gisa ere. Ulertzekoa. Nahikoa zama ekartzen duenari orban gehiago eranstea ez da gizalegea.

Bistan dena, alferrikakoa da emigrazioaren kontra egotea. Gu aberatsak eta haiek pobreak diren bitartean etortzen segituko dute, gu kontra egon ala ez. Guk estatu bat eratu ala ez. Emigratioak on egiten digu ekonomikoki eta sozialki.

Nafarroan legeriak,  
erakunde nagusien  
jarrerak eta gizartearen  
sektore handi batek  
etorkinei bidaltzen dieten  
mezuan euskara traba  
bat gehiago da haien  
herritartze ekonomiko  
eta sozial berrian


Ordainean -izan gaitetzen zintzo- maldatsua bilakatzen du euskararen biziberritzea.

EAEn berriki argitaratutako inkestak nabarmendu du hango etorkinek euskararen aldera duten jarrera ona. Hiru probintzietan, irakaskuntzak euskararen ezagutza unibertsala bermatzen du. Euskara (zerbait) ikasiko dute Bolivia-tik, Marokotik edo Bulgariatik etortzen direnen seme-alabek; ez dira oztopo izanen haien gurasoak.

Nafarroan, berriz, ez dago toki guztietan bermatua ez euskarazko ez euskararen irakaskuntza. Gainera, bertako betidaniko bizilagun aunitzek begi txarrez ikusten du euskararen garapena. Foru Komunitatean ez dugu oraingoz inkestarik. Ez dakigu etorkinek zehazki zer pentsatzen duten. Badakigu, aldiz, non matrikulatzen dituzten seme-alabak, eta ez ohi da D ereduan izaten. Batzuetan, eskaintzen ere ez zaielako. Bertzetan, aukeran nahiago izaten dutelako euskararik gabeko eredu.

Euskaltzaleok integrazioarako tresna gisa saltzen diegu euskara. Nafarroan, ordea, legeriak, erakunde nagusien jarrerak eta gizartearen sektore handi batek etengabe bidaltzen dieten mezuan euskara traba bat gehiago da haien herritartze ekonomiko eta sozial berrian. Ez gintuzke hainbertze harritu behar ikuspegi hori gailentzeak gero eta gehiago diren etorri berrien artean.

Betidaniko nafarrak gureganatzeko soka-tiran irabazle gertatu gabe etorri zaizkigu nafar berriak. Balantza are gehiago desoreka ez dadin, betikoari eustea baino zerbait gehiago pentsatu beharko da noizbait. Kontuak hausnarketa behar du. Histerismorik gabe. Apriorismorik gabe. Antiojo ideologiko gehiegirik gabe. ●



**Nafarroako**  
Bertsolari Txapelketa  
2023

## Final-laurdenak

**IRURITA.** Urriak 7, larunbata. 17:30ean, Gizarte Bilgunean

Saioa Alkaiza Guallar, Eneko Fernandez Maritxalar, Sarai Robles Vitas, Idoia Granizo Urabarrena, Ekain Alegre Gil eta Egoitz Gorosterrazu Elizagoien

Gai-jartzailea: Maialen Belarra Eneterreaga

**VIANA.** Urriak 14, larunbata. 17:30ean, Kultur Etxean

Julio Soto Ezkurdia, Xabat Illarregi Marzol, Ekhiñe Zapiain Arlegi, Patxi Castillo Graciarena, Urko Gartzia Aleman eta Aitor Irastortza Arrizubieta

Gai-jartzailea: Zigor Gartzia Arregi 'Zian'

**UHARTE.** Urriak 15, igandea. 17:30ean, Arte Garaikideko Zentroan

Joanes Illarregi Marzol, Xabier Silveira Etxeberria, Mikel Lasarte Cia, Julen Zelaia Iriarte, Beñat Astiz Isasi eta Eki Mateorena Zozaia

Gai-jartzailea: Ainhoa Larretxea Agirre

**LEITZA.** Urriak 21, larunbata. 17:30ean, Herri Aretoan

Eneko Lazkoz Martinez, Josu Sanjurjo Altzuri, Bittori Elizalde Soto, Endika Legarra Nuin, Saats Karasatorre Martinez eta Fernando Ziganda Urdanpilleta

Gai-jartzailea: Ander Aranburu Arriola

Antolatzailea

Laguntzailea



www.bertsotzale.eus

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai